



Arartekoaren 2019R-2256-18 Ebazpena, 2019ko uztailaren 30ekoa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari honako hau gomendatzen zaio: berrikius dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubide subjektiboa ukatzeko ebazpena; horren arabera, kexagileak ez du bete eskubide ekonomikoak baliarazteko betekizuna, ez baitu egiaztatu epai judizialean erabakitako gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak betearazteko eskaera egin izana.

Aurrekariak

Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu izanarekin, arrazoi hauek direla tarteko:

-“No haber hecho valer el derecho de alimentos que tiene en virtud de convenio regulador o sentencia.

-En Septiembre 2017 se dicta auto de ejecución de la medida de pago de pensiones de alimentos: transcurrido 1 año no se ha justificado si dicha ejecución se ha llevado a cabo o no. Si no se hubiera podido llevar a cabo, debería haber justificado el motivo”.

Kexagileak guraso bakarreko bizikidetz-unitatea osatzen du adinez nagusia baina ekonomikoki haren mende dagoen semearekin, eta ukatze horrekin baina batez ere emandako arrazoiarekin ados ez dagoela adierazi zuen; izan ere, kexagileak uste zuen diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen zituela, eta horregatik, ebazpen horren aurkako aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, dokumentazio honen kopiaekin batera:

-Barakaldoko Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegiaren 527/2010 Epaia, 2010eko irailaren 10ekoa, Adostasun gabeko dibortzioari buruzkoa. Horren bidez, epaitza horretan adierazten zen adingabearen zaintza eta babespea kexagilearen ardurapean geratzen zela eta bikotearen aldeko mantenu-pentsioa ezartzen zela: hilean, 300 euro. Zenbateko hori urtero eguneratu beharko zen prezioen indizearen aldaketetan oinarrituz.

Epai horretan aipatzen zen 2005ean bi aldeek izenpetutako gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmena, bikotekide ohiak sistematikoki urratu zuena; hala, auzi-iheslaritzat jo zen ondoren, eta egoera horrek adostasun gabeko dibortzioaren prozedura abiaraztea eragin zuen. Bi prozedurak epaitegiek esleitutako ofiziozko abokatuarekin abiarazi ziren, bi alditan gutxienez doako laguntza juridikoa eskatu eta gero.





-Barakaldoko Lehen Auzialdiko Epaitegiak (familia) erabakitako gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak nahitaez betearazteko eskaeraren autoa, 2012ko irailaren 7koa, epaia eman zen egunetik erabakitako mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik.

-Bikotekide ohiaren aurkako diru-betearazpenaren demanda, 2017ko uztailaren 14koa, doako laguntza juridikoa berriz eskatu ondoren esleitutako ofiziozko abokatuak jarritakoa, dibortzioaren epaian finkatutako mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik. Aita Espainian ez dela bizi egiaztatu da, jatorrizko herrialdera, Kolonbiara, itzuli baita, eta aurkako alderdiak non bizi den ez daki. Lanbidek emandako demanda horretan, honako hau adierazi zen:

*HIRUGARREN atalean, demanda berri horrek erantzuten ziola bizikidetzaren unitatearen oinarrizko premiak betetzeko behar zituen gizarte laguntzak aitortu ahal izateko Lanbidek egindako errekerimenduari; izan ere, aitak mantenu-pentsioa ez zuen ordaintzen.

*Halaber, adierazi zen aitaren ondasunak zein ziren jakiteko eginbideak bideratu zirela, baina alferrikakoak gertatu zirela; beraz, 807/2012 zenbakiko betearazpena behin-behinekoz artxibatu egin zen.

*2012ko irailetik 2017ko ekaina bitarteko pentsioen zenbatekoak betearazteko autoa eman ondoren, bi betearazpenak pilatu behar dira.

*Aipatu zen ere, aita desagertuta egon arren, eta Espainian ondasun edo eskubiderik utzi ez bazuen ere (mantenu-pentsioagatik zor zituen zenbatekoak betearazteko aukera emango zutenak), haiek bere jatorrizko herrialdean betearaztea lortu nahi zela 1909ko apirilaren 18an Espainiaren eta Kolonbiaren artean sinatutako epaiak betearazteko hitzarmena aplikatuz.

-Barakaldoko Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesalaren (arlotu zibila) mantenu-pentsioaren neurria nahitaez betearazteko 1084/2017 Autoa, 2017ko irailaren 18koa.

-2017ko irailaren 19ko antolaketaerako eginbidea. Horren bidez, emandako ebazpena pilatzea erabaki da aurreko eguneko datarekin, pilatutako mantenu-pentsioa ordaindu gabeko zor guztiagatik (kexagileari ordaindu ez zaiona), dibortzioaren epai judiziala eman zenetik eta gurasoen eta seme-alaben arteko hitzarmen judiziala berretsi zenetik. Printzipalaren 17.430,300 €, guztira (2009tik ordaindu gabeko mantenu-pentsioa), eta 5.229,09 € interes eta kostuengatik.

-Kexagilearen ofiziozko abokatuaren idazkia, 2018ko irailaren 13koa. Horren bidez, azpimarratu zen bi betearazpen demandak eragin zituen betearazpen autoak kexagileak, dagoeneko, aurkeztu zituela.

Horren ondoren, kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan.





Berraztertze errekurtsoan nahiz erakunde honetan aurkeztutako idazkian, kexagileak errepikatu zuen eskubide ekonomikoak baliarazi zituela, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak adierazten duen moduan, eta prozeduraren hainbat unetan Lanbiden aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu zuen. Nabarmendu zuen ere, une oro eta hasiera-hasieratik doako laguntza juridikoa eskatu ondoren esleitu zitzaizkion ofiziozko abokatuen aginduetara geratu zela, zuzenbideko ezagutzarik ez baitu.

Kexagileak adierazi zuen, halaber, egitatezko banantzetik edo mantenu-pentsioa ordaindu ez zenetik 2 urteko epean (24 hilabete), zegokion ebazpen judiziala eman zela, eta kasu honetan zor ziren zenbatekoak ez zirela ordaindu; izan ere, hori ez zegoen bere esku, ofiziozko abokatuaren eta epaitegietako epe eta prozesuen mende baizik; halaber, seme-alaben aita non zegoen ez jakitearen mende, ez baitzuen inoiz jatorrizko hitzarmenean ezarritako neurriak bete eta 2009tik ere ez zuen mantenu-pentsioa ordaindu.

Kexagileak aipatu zuen semearen aitarekin 2012an izan zuela azkeneko harremana, jatorrizko herrialdera, Kolonbiara, bizitzera joango zela esan ziotenean, gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituen hitzarmena sinatu eta 3 urte geroago; hitzarmen hori sistematikoki urratu da, gainera, nahiz eta hori ez gertatzeko ahalegin handiak egin.

Gainera, berriro ere esan zuen 2017ko ekainaren eta 2018ko uztailaren artean (Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpenaren arrazoiak aipatzen duen epealdia), ofiziozko abokatuaren hainbat jardun ageri zirela; haien bidez, epai judiziala betearazteko eskatu zuen gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak bete ez zirelako. Azkenik, une horretan bizikidetzaren unitatearen oinarritzko beharrak betetzeko diru-sarrerarik ez zuela esan zuen, eta bizikidetzaren unitate horren ahuldade egoera areagotu egin zela.

Arartekoan kexa aurkeztu ondoren, kexagileak aipatu zuen Lanbiden esan ziotela diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria berriz eskatzearekin batera, epaia ezin izan dela betearazi dioen idazkari judizialaren ziurtasuna aurkeztu behar zuela, orain arte eskatu ez diotena.

Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta, ondoren, lankidetzaren eskatu zion Lanbideri adierazitako egitateei lotuta. Horrez gain, aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion, eta errepikakorrak ez izatearren, gero aipatuko ditugu.

Lankidetzaren eskaera horri erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak txosten bat igorri zion Arartekoari, eta honako hau adierazi zen bertan:

Ikusi dira 2018ko urriaren 24an aurkeztutako berraztertze errekurtsoa, horri erantsitako dokumentazioa eta espedienteak barne hartzen duen dokumentazioa. Hori horrela, egiaztatu da, 2018ko uztailaren 6an prestazioen eskaera egin ondoren entzunaldi-izapidea eman zela 2018ko abuztuaren 29an (irailaren 11n





jakinarazi zitzaion interesdunari); horri jarrikiz, eta kontuan hartuta eskatzaileak 2012/RGI/005490 espedienteari zegokion prestazioa ere jasotzen zuela, prestazioa irungi egin zitzaion eskubide ekonomikoa ez baliatzeagatik,

Zehazki, bere semearentzako mantenu-pentsioa ez jasotzeagatik. Egoera hori egiaztatzeko dokumentazioa eskatu zitzaion eskatzaileari; hau da, eskatu zitzaion berati edo bizikidetzako unitateko edozein kideri egokituko litzaiokeen eskubide edo prestazio ekonomikoro baliatzen ari zela egiaztatzeko dokumentazioa zerbitzu honi aurkezteko.

Horretarako 2018ko irailaren 11n auto bat aurkeztu zuen (erregistro-zenbakia: 2018/302963), 2017ko irailaren 4koa, Barakaldoko lehen auzialdiko 5. Epaitegiaren aurrean gauzatutako adostasun gabeko dibortzioaren 815/2009 prozeduratik eratorritako nahitaezko batearazpena ezartzen zuena. Auto horren bidez, ordaindu gabeko zenbatekoak erreklamatu zituen, 2012 irailetik 2017ko ekainera bitartean jaso gabeko zenbatekoak erreklamatu ostean.

2017ko ekainetik 2018ko uztailera bitartean berriro eskatu zuen DSBE prestazioa, eta ez da prozedurarik abiarazi mantenu-pentsio hori erreklamatzeko.

DSBERi buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9. Artikuluaren 8) atalak ezartzen du DSBE jaso dezaketela baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak: Espedientearen izapidetzea amaitu aurretik titularrari edo bizikidetzako unitateko edozein kideri titularrari edo bizikidetzako unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomikoro baliatzea.

Ildo horretan, Lanbidek jarraitzen dituen izapideen artean 9.ak (irizpide horiek jendaurrean daude edonork kontsultatzeko) ezartzen du bai DSBE eskatzen duten pertsonak bai prestazio horren titular direnek prestazioa emateko ebazpenaren aurretik eta hura jasotzen duten bitartean titularrari edo bizikidetzako unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomikoro baliatu behar dutela.

Eskubide ekonomikokoak baliatzeak bi izaera ditu: Batetik, DSBERen titular guztien betebeharra da. Bestetik, prestazio hori eskuratzeko baldintza da, eta, baldintza hori betetzeko eskatu ahalko zaio interesdunari eskabidea aurkeztu bezain laster.

Ildo horretan, 6.3. izapideak ezartzen duenez, DSBERen eskatzaile guztiek sorospen edo prestazio horiek jaso nahi badituzte, aldeztatik eskatu behar dituzte, eta diru-sarrera gisa zenbatuko dira.

Azkenik, 9.3.1 irizpidearen A2) atalaren arabera, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak iritziko du jasotzailea bere eskubideak baliatzeko betebeharra betetzen ari ez dela edo bete duela, dituen eskubideak baliatzeko betebeharraren berri emateko dokumentuan ezarritako izapideak eta epeak bete baditu edo betetzen ari bada: zehazki, honako hauek:





Doako justiziarako eskabidea bi hileko epearen barnean aurkeztu beharko da, izatezko banantzerik aurrera edota ordaindu gabeko hirugarren hiletik aurrera zenbatzen hasita.

Orientazio Juridikoko Zerbitzuaren ebazpena (doako justizia esleitzen edo ukatzen duena) jaso ondoren, 2 hileko epearen barnean aurkeztu beharko da dagokion demanda.

Epai/ebazpen judiziala eman eta interesdunak zordundutako zenbatekoen ordainketa jaso ez badu, 2 hileko epearen barnean (epaia eman zenetik zenbatzen hasita) hasi beharko dira betearazpen-izapideak (ondasunen eta enbargoen ikerketa).

Nolanahi ere, izatezko banatzea gertatu zenetik edo mantenu-pentsioa ordaintzeari utzi zitzaionetik zenbatzen hasita, 2 urteko epea (24 hilabete) emango da dagokion ebazpena emateko eta, hala badagokio, zordundutako zenbateko guztiak ordaintzeko.

Kasu honetan, kontuan hartuta zenbat denbora igaro den aurreko betearazpen-prozedura abiarazi zenetik (2017ko ekaina) DSBE prestazioa berriro eskatu arte (2018ko uztaila), ondorioztatu behar da errekurtsogileak ez duela bete maiztaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9. Artikuluan ezarritako baldintza”.

Azkenik, Lanbidek honako hau jakinarazi zion erakunde honi bere txostenean:

“Hala, horregatik guztiagatik martxoaren 1ean ebatzi da aurkeztutako berraztertze errekurtsua, 2019/REC/004075 espedientean, eta berariaz aipatu da eskatutako baldintzak bete ondoren prestazioak berriro eskatzeko aukera izango duela.

Hori guztia ikusita, uste dugu Lanbideren jarduketa erreferentziazko prozeduran ezarritakoari egokitzen zaiola, bai eta erantzun honen gorputzean aipatutako barneko arautegiari ere.”

Horrenbestez, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

Espediente honetan aztertzen da Lanbideren ebazpena zuzenbidearen araberakoa den; ebazpen horren bidez, kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaera ukatzea erabaki da.



1. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaera ukatu du, uste duelako maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 9.8 artikuluan ezarritako betekizuna ez duela betetzen; horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskatzaileek eskubide ekonomiko oro baliarazteko betebeharra ezartzen diena, Lanbidek bere Irizpideen Dokumentuan,³ 2017ko maiatzean eguneratua, egiten duen interpretazioan, honako honek eraginda, erakunde publikoaren ukatzeko ebazpenaren arabera: *"...en septiembre del año 2017 se dictó auto de ejecución de la medida de pago de pensiones de alimentos y, transcurrido 1 año, según Lanbide no ha justificado si dicha ejecución se ha llevado a cabo y de no hacerlo no ha justificado el motivo".*

Betekizun hori betetzen dela egiaztatzeko modua 25eko 147/2010 Dekretuak (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 31.1.a) artikuluan ezarritakoa da, epai judiziala egokitu den kasuetarako:

"31. artikulua.– *Eduki ekonomikoko eskubideak eta prestazioak egiaztatzea(..) Horretarako, ondorengo kasuetan ulertuko da eskubideak oso-osorik baliatu direla:*

- a) *Edozein jurisdikzio-ordenari lotutako eskubide eta prestazioen kasuan, dagokion epaia edo beste ebazpen judiziala eman ondoren edo, halakorik ez badago, eskubidea edo prestazioa erreklamatzeko prozedura formaz hasi ondoren eta horretan atzera egin ez bada.*

Ebazpen judizialak jadanik onetsi dituen baina jaso ez diren eskubideen edo prestazioen kasuan, horiek baliatu direla ulertuko da horiek eman behar dituen pertsonari dagokion ez-betetzeagatiko dagokion ebazpen judizialaren betearazpen-intzidenteari hasiera eman zaiola egiaztatzen denean".

Hizpide dugun kasuan, alde batetik, egiaztatu da 2005ean ezkontideak banantzean, kexagileak hala eskatuta, ezkontideek gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak zuzentzeko hitzarmen arautzaile bat sinatu zutela. Nolanahi ere, izenpetu eta denbora luze igaro ondoren, semearen aita auzi-iheslarizat jo zen, eta ez zen agertu, ez zuen mantenu-pentsiorik ordaindu; desagertuta zegoen.

Horregatik, adostasun gabeko dibortzio prozesuari ekiteko doako laguntza juridikoa eskatu zuen, eta horren gaineko epaia eman zen 2010eko irailaren 10ean; semeari ordaindu beharreko mantenu-pentsioa finkatzen zen bertan. Gainera, jatorrizko hitzarmen arautzailea sinatu zenetik mantenu-pentsioa ez zela ordaindu ikusi ondoren, egiaztatu da kexagileak eskubidea edo prestazioa maila judizialean erreklamatzeko prozedura behin baino gehiagotan abiarazi duela eta, orduz geroztik, ez duela atzera egin. Bikotekide ohia desagertu denetik ere. Bi kasuetan Lanbidek emandako arrazoiak gezurtatuz, eta kexagilearen prestazioak aitortzeko eskaera ukatzeko ebazpena eragin dutena, honako era honetan: *"Hitzarmen arau-*

³ http://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_criterios/es_def/adjuntos/Criterios_RGI_201704.pdf



emailearen edo epaiaren ondorioz duen/duten mantenu-pentsiorako eskubidea baliatu ez izana”.

Bestalde, nabarmendu beharreko elementu interesgarri gisa esan behar da, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak ez duela ezartzen betearazteko gorabeheraren eskaera bi hilabeteko epean egin behar dela. Epe hori lehen aipatutako irizpideen dokumentuan jaso da eta, beraz, ez du izaera arauemailea, interpretagarria edo orientagarria baizik.

lido berean, azpimarratu behar dugu kexagileak doako justizia eskatu zuela 2017ko uztailan mantenu-pentsioa ez zitzaiola ordaintzen salatzen jarraitzeko eta ordain zezan erreklamatzeko, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortzeko eskaera egin baino urtebete lehenago; hortaz, betekizun hori betetzen zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria eskatu aurretik. Horrek gezurtatu egiten du ukatzeko ebazpenaren arrazoia eta Arartekora igorritako Lanbideren lankidetzako txostenean jasotakoa. Honako hau dio: *“...2017ko ekainetik 2018ko uztailera bitartean berriro eskatu zuen DSBE prestazioa, eta ez da prozedurarik abiarazi mantenu-pentsio hori erreklamatzeko*

Dena den, Lanbideren ustez, kexagileak ez du eskubide ekonomikoa baliarazi, eta aipatu du aurrez, 2012/RGI/005490 espedientea arrazoi berarekin iraungi zela (eskatzaileak hura ere jasotzen zuen).

Kontu hori zehatz-mehatz aztertu zen Diagnostiko-txostena⁴. Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017 agirian, izenburu hau duen 5.3.3.1. apartatuan, hain zuzen ere: *“Dibortzioko, banantzeko edo guraso eta seme-alaben arteko neurriak ezartzen dituen epai judizialen aitortutako elikagaien pentsioa ez egikaritzea”*. Apartatu horretan baloratu zen, Arartekoan jasotako eta aztertutako kexen arabera, Lanbide aginduaren interpretazio zabalagoa egiten ari zela. Hala, askotan gizarte-bazterketan zeuden pertsonen eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskatzaileei edo titularrei eskatzen zien egin ezin zituzten jardunak egiteko.

Gainera, erakunde honen aburuz, araudi erregulatuarekin (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua eta urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua) diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradunek betebeharrak ez betetzeari eta betekizunak galtzeari buruzko aurreikuspenek gabezi handiak dituzte, hainbat alditan esan duen moduan, eta 2017ko diagnostiko-txostenean aztertu da. Besteak beste, proportzionaltasun-printzipioa ez da aipatzen. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziek era oso zabalean garatu dute printzipio hori.

⁴ http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf



Hortaz, ebazpen honetan aztertutakoa bezalako kasuetan, Lanbidek titularraren eginbideak haztatu beharko lituzke, eskubidea etetea edo iraungitzea dakarren edozein erabaki hartu aurretik. Batez ere, kexagileak egiaztatu duenean gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak finkatzeko epai judiziala betearazteko eskatu duela, eta hori lortzeko prozedura judizialean ezarritako urratsak eta izapideak jarraitu behar direla abokatuarekin laguntzarekin.

2. Bestalde, ebazpen honetan Arartekoak egindako azterketaren elementu interesgarri gisa ahotara ekartzen da epai judizialaren ondoriozko betearazpen-akzioa iraungi ez izana.

Ildo horretan, Prozedura Zibilaren Legearen 518. artikulua epai judizialean, arbitraje-ebazpenean edo bitartekaritza-erabakian oinarritutako betearazpen-akzioa iraungitzea arautzen du.

"Epaian, eta transakzio judiziala nahiz prozesuan lortutako hitzarmena onetsi duen ebazpen judizialean, bai eta tartekaritza-ebazpenean ere, zein akzio betearazle oinarritu eta hori iraungiko da, epaia edo ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo bost urteetan, kasuan kasuko demanda betearazlea jarri ez bada".

Bikotekide ohiaren aurkako diru-betearazpenaren azken demanda 2017ko uztailaren 14koa zen, eta aurreko eguneko datarekin emandako ebazpena pilatzea erabakitzen duen antolaketaarako eginbidea (printzipalaren 19.957,40 € eta 5.878,62 € interes eta kostuengatik), 2017ko irailaren 19koa.

Hori guztia aintzat hartuta, kexagileak eskubide ekonomikoa baliarazi duela egiaztatu da; izan ere, 25.836,02 euroko zor baten hartzekodun da elkarrekin izandako semearen beharrei aurre egiteko ezarritako mantenu-pentsioa ordaindu ez delako.

3. Bizikidetzaren unitate bati onartutako diru-sarrerak bermatzeko errentak eta etxebizitzarako prestazio osagarriak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen esparruan, eta besteak beste diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak garatutakoak, gizarte eta lan bazterkeria-egoerak arintzea dute helburu, eta herritarren gizarte-eskubideak berariaz erabiltzeko nahikoa gizarte edo ekonomia baliabideak eta baliabide pertsonalak ez dituzten pertsonak gizarteratzen laguntzen dute (1. art.)

Emakumeek eta ardurapeko adingabeek osatutako guraso bakarreko familiak pobrezia-egoeren eraginpean daude bereziki, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako txosten eta diagnostikoetan, eta beste erakunde batzuek egindakoetan jasotzen den moduan.

Antzeko espedienteetan, erakunde honek egiaztatu du kexagileek zigor hirukoitza jaso izan dutela: epai judizialean finkatutako mantenu-pentsioa gurasoek ez ordaintzea; beren baliabideekin bakarrik seme-alabak haztea, guraso bakarreko





bizikidetzaren unitate gisa eta gehienetan egoera sozio-ekonomiko larrian egonik; azkenik, beren prestazio ekonomikoak etetea edo iraungitzea, beren jardun eremuaren barnean sartzen ez diren jardunak ez egiteagatik eta beste ezkontideak dituen guraso-betebeharrak ez betetzearekin zerikusia dutenak.

Amaitzeko, Arartekoa Lanbidek egindako interpretazioarekin ez dator bat, hau da, kexagileak ez duela betetzen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.8 artikuluan ezarritako betekizuna; hala, erakunde honek uste du diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea ukatzeko arrazoirik ez dagoela [abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1.b) artikulua]; izan ere, titular zen eskubide ekonomikoa baliarazi du.

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan agindutakoaren arabera, honako gomendio hau egiten zaio Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

GOMENDIOA

Arartekoak gomendatzen du Lanbidek honako hau berrikus dezala: diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubide subjektiboa ukatzeko ebazpena, kexagileak eskubide ekonomikoa baliarazteko betekizuna bete baitu; izan ere, egiaztatu du epai judizialean erabakitako gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak betearazteko eskaera egin izana.

